# IRITZIAK

**Euskal iritzi publikoaren seihileko jarraipena**

*Seguimiento semestral de la opinión pública vasca*


8

**Uztaila – Abendua**

**2004**

**Julio – Diciembre**

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*


**EUROPAKO KONSTITUZIOARI BURUZKO IRITZIAK**
*OPINIONES SOBRE LA CONSTITUCIÓN EUROPEA*

**ESTATU BATUEN ERAGINA ETA PRESIDENTETZARAKO HAUTESKUNDEAK**
*INFLUENCIA DE LOS ESTADOS UNIDOS Y ELECCIONES PRESIDENCIALES*

**EUSKO JAURLARITZAREN HAINBAT LEGE-PROIEKTURI BURUZKO EZAGUTZA**
*CONOCIMIENTO DE DIVERSOS PROYECTOS DE LEY DEL GOBIERNO VASCO*

**BEGIKOTASUN POLITIKOAK**
*SIMPATÍAS POLÍTICAS*


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# IRITZIAK - 8

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2004 uztaila – abendua

## LABURPENA / RESUMEN

### EUROPAKO KONSTITUZIOARI BURUZKO IRITZIAK
### *OPINIONES SOBRE LA CONSTITUCIÓN EUROPEA*

EAEko biztanle gehienek Europako Konstituzioari buruz hitz egiten entzun dute (%83k) eta beste %17k ez.

Alabaina, Konstituzio horren edukiari buruzko ezagutza maila oso eskasa da. Honela, %35ek ezagutza baxua dutela diote, %18k oso baxua eta beste %32k batere ezagutzarik ez eta aldiz, nolabaiteko ezagutza maila bat dutenak soilik %10 dira (%1ek oso altua, %4k altua eta %5ek ertaina). Oro har, ezagutza maila eskasa izan arren, herritarren gehiengoak ez du Europako Konstituzioaz informatzeko interesik agertu: %37 gutxi interesatuak daude eta %22 ez daude batere interesatuak eta aldiz, %27 nahikoa eta beste %8 oso interesatuak.

Europako Konstituzioaren inguruko gaiez soilik %20k diote ondo informatuak izaten ari direla (%2k oso ondo eta %18k nahikoa ondo). Aldiz, %62k gaizki informatuak izaten ari direla uste dute (%33k nahikoa gaizki eta %29k oso gaizki). Gainontzeko %18k ez dakite edo ez dute erantzun. Europar Batasuneko batez bestekoarekin konparatuz, gurean gehiago dira ez dakitenak edo erantzuten ez dutenak eta beraz, Europan pixka bat gehiago dira ondo informatuak (%26) eta gehiago, baita, gaizki informatuak (%72).

EAEko herritarren %95ek diote Europako Konstituzioak herritarren eskubide sozialak (lana, jubilazioa, hezkuntza, osasuna...) bermatu beharko lituzkeela, %88k Europako hizkuntza guztiak ofizial aitortu beharko lituzkeela eta azkenik, %83k EBko zuzendaritza organuetan Europako herriek ordezkaritza izan beharko luketela.

Biztanleriaren gehiengoa Europako Konstituzioa onartzeko erreferenduma egitearen aldekoa da (%83) eta soilik %7 dago aurka. Erreferendum horretan aldeko botoa emango lukete %36k, aurkakoa %6k, beste %19 abstenitu egingo lirateke eta talderik nagusienak (%39k) ez daki edo ez du erantzun.

*La mayoría de la población de la CAPV (83%) ha oído hablar de la Constitución Europea y un 17% no.*

*Sin embargo, el grado de conocimiento respecto del contenido de esa Constitución es muy escaso. Así, el 35% señalan tener un conocimiento bajo, el 18% muy bajo y otro 32% nulo y por el contrario, quienes tienen algún grado de conocimiento son sólo el 10% (1% muy alto, 4% alto y 5% medio). Además, a pesar del escaso nivel de conocimiento la mayoría de la ciudadanía no ha mostrado interés en informarse sobre la Constitución Europea: el 37% está poco y el 22% nada interesado y en cambio, el 27% bastante y otro 8% muy interesado.*

*Únicamente un 20% dicen estar siendo bien informados sobre cuestiones relativas a la Constitución Europea (2% muy bien y %18 bastante bien) frente al 62% que consideran que están siendo mal informados (33% mal y 29% muy mal). El restante 18% no saben o no contestan. En comparación a la media de la Unión Europea, entre nosotros son más quienes no saben o no responden y en consecuencia, en Europa son ligeramente más quienes están bien informados (26%) y son más, también, quienes están mal informados (72%).*

*El 95% de la ciudadanía de la CAPV señala que la Constitución Europea debería garantizar los derechos sociales de las y los ciudadanos (trabajo, jubilación, educación, salud...), el 88% que debería reconocer oficialmente todas las lenguas de Europa y por último, el 83% que debería dar representación a los pueblos de Europa en los órganos directivos de la UE.*

*La mayoría de la población es favorable a la realización de un referéndum para la aprobación de la Constitución Europea (83%) y únicamente el 7% están en contra. En dicho referéndum votarían a favor el 36%, en contra el 6%, otro 19% se abstendrían y el grupo más numeroso (39%) no saben o no contestan.*

### ESTATU BATUEN ERAGINA ETA PRESIDENTETZARAKO HAUTESKUNDEAK
### *INFLUENCIA DE LOS ESTADOS UNIDOS Y ELECCIONES PRESIDENCIALES*

Estatu Batuetako (AEB) azken hauteskunde kanpainaren inguruan izandako interes mailari dagokionez, bi multzo bereiz ditzakegu: batetik, oso edo nahikoa interesatuak (%9 eta %33, hurrenez hurren) eta bestetik, gutxi edo batere interesatuak ez daudenak (%33 eta %20, hurrenez hurren). Hala ere, ia herritar guztiek (%95ek) dakite George Bushek irabazi dituela hauteskunde horiek.

EAEko herritarrek AEB-ei buruz hitz egiten entzuten dutenean gehienbat sentsazio negatiboak izaten dituzte: %37k kritika eta %23k kezka. Beste laurden batek (%24k) indiferentzia eta oso gutxik, ordea, sentsazio positiboa (%5ek sinpatia eta %2k mirespena).

*Con respecto al grado de interés con el cual se ha seguido la última campaña electoral estadounidense se observan dos grupos: por un lado, quienes están muy o bastante interesados (9% y 33%, respectivamente) y por otro lado, quienes están poco o nada interesados (33% y 20%, respectivamente). Sin embargo, casi toda la gente (95%) sabe que George Bush ha ganado dichas elecciones.*

*Las y los ciudadanos de la CAPV cuando oyen hablar de los EEUU se identifican principalmente con sensaciones negativas: un 37% con la crítica y un 23% con la inquietud. Otra cuarta parte (24%) con la indiferencia y muy pocos, por el contrario, con sensaciones positivas (un 5% con la simpatía y un 2% con la admiración).*

Oro har, AEBek arlo desberdinetan eragin txikiagoa izatea nahi luke jendearen gehiengoak, hala nola: %78k ejerzitoan eta munduan zehar egindako parte-hartze militarretan, %64k kultur bizitzan (zinema, telebista, musika), %63k nazioarteko politikan, %62k bizitza ekonomikoan eta %61ek Europar Batasunaren orientabide nagusietan. Alabaina, AEBen eragin handiagoa nahi luketen herritarrak gutxienez %8 dira eta %20raino iristen dira bizitza ekonomikoa aipatzean.

*En general, la mayoría de la gente desearía que los EEUU tuvieran menor influencia en distintos ámbitos, tales como: el ejército y las intervenciones militares en el mundo (78%), en la vida cultural: cine, televisión, música (65%), en la política internacional (63%), en la vida económica (62%) y en las principales orientaciones de la Unión Europea (61%). Sin embargo, al menos el 8% de la ciudadanía desearía que los Estados Unidos tuvieran más influencia y ascienden hasta el 20% si se refieren a la vida económica.*

## EUSKO JAURLARITZAREN HAINBAT LEGE-PROIEKTURI BURUZKO EZAGUTZA
## *CONOCIMIENTO DE DIVERSOS PROYECTOS DE LEY DEL GOBIERNO VASCO*

EAEko herritarrek Eusko Jaurlaritzak azken aldian hainbat lege-proiektu eta aurreproiektu onartu dituela zenbateraino ezagutzen duten aztertu dugu. Oro har, herritarrek ezagutza maila nahikoa eskasa dute lege horien onarpenaz, onartu direla entzun ez dutenak entzun dutenak baino gehiago baitira.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Kulturaren Plana onartu duela herritarren heren batek (%32k) entzun du eta beste bi herenek (%65ek) ez dute entzun.

Uraren Lege-proiektuaren onarpenari buruzko ezagutza maila aurrekoaren oso antzekoa da: %30ek entzun dute onartu dela eta beste %67k ez.

Lurzoruaren Lege-proiektuaren onarpenari dagokionez, entzute maila aurrekoena baino altuagoa da, %43k entzun dute hortaz hitz egiten eta %53k ez. Lege-proiektuan lurzoru urbanizagarriaren %70 babes ofizialeko etxebizitzak egiteko gordetzea planteatzen da; biztanleen %87 neurri horren alde daude eta soilik %6 aurka.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen Aurreproiektuaren onarpena da ezagutza mailarik altuena duena: %49 dira hori entzun duten herritarrak eta ia beste horrenbeste entzun ez dutenak (%47). Gainera, gehiengo nagusi batek (%87k) uste du beharrezkoa dela berdintasunaren aldeko lege bat onartzea eta soilik %7k diote ezetz.

*Se ha analizado hasta qué punto conocen las y los ciudadanos de la CAPV la reciente aprobación de algunos proyectos y anteproyectos de ley aprobados recientemente por parte del Gobierno Vasco. En general, la población tiene un escaso nivel de conocimiento de la aprobación de dichas leyes, pues son más quienes no han oído hablar sobre su aprobación que quienes sí lo han hecho.*

*Un tercio de la ciudadanía (32%) ha oído que el Gobierno Vasco ha aprobado el Plan Vasco de Cultura y otros dos tercios no lo han hecho (65%).*

*El conocimiento sobre la aprobación del Proyecto de Ley de Aguas es similar al anterior: el 30% han oído que se ha aprobado y el 67% no.*

*Respecto a la aprobación del Proyecto de Ley del Suelo el nivel de conocimiento es superior a las anteriores; así, un 43% ha oído hablar sobre ello y el 53% no. En el Proyecto de Ley se plantea reservar el 70% del suelo urbanizable para la construcción de viviendas de protección oficial; el 87% está de acuerdo con dicha medida y únicamente un 6% en contra.*

*Por otro lado, la aprobación del Anteproyecto de Ley de Igualdad de Mujeres y Hombres es la que presenta el más alto grado de conocimiento: el 49% de la ciudadanía lo ha oído y casi otro tanto no (47%). Además, una gran mayoría (87%) cree que es necesaria una ley de igualdad y sólo un 7% cree que no.*

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLITICAS*

Neurketa guztietan EAEko biztanleen begikotasunik handiena duen alderdia EAJ da, beste alderdiekiko alde handi samarraz. 2004ko azaroko neurketan PSE-EE eta Ezker Batua pixka bat jaitsi egin dira. Bestalde, PPk eta Aralarrek serieko beraien emaitzarik baxuenak izan dituzte eta gainerako alderdiek ez dute aldaketa nabarmenik izan. Beti bezala, aipatzekoa da alderdi politiko batekiko ere begikotasunik adierazten ez dutenen portzentaje altua (%25).

*El partido que suscita mayores simpatías entre las y los ciudadanos de la CAPV en todas las mediciones es el PNV, con bastante diferencia respecto al resto de partidos. En la medición de noviembre de 2004 el PSE-EE y Ezker Batua han descendido ligeramente. Por otro lado, PP y Aralar han obtenido sus peores puntuaciones en la serie y el resto de los partidos no ha tenido cambios importantes. Como es habitual, destaca el alto porcentaje de personas (25%) que dice no sentir simpatía por ningún partido político.*

## EUROPAKO KONSTITUZIOARI BURUZKO IRITZIA
## *OPINIONES SOBRE LA CONSTITUCIÓN EUROPEA*

**Entzun al duzu Europako Konstituzioari buruz hitz egiten?**
*¿Ha oído hablar de la Constitución Europea?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 83 |
| **Ez** / *No* | 17 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 0 |
| | 100% |

**Europako Konstituzioaren edukiari buruzko zure ezagutza nolakoa dela esango zenuke: oso altua, altua, ertaina, baxua, oso baxua edo batere ez?**
*¿Diría Ud. que su grado de conocimiento acerca del contenido de la Constitución Europea es muy alto, alto, medio, bajo, muy bajo o nulo?*

| | EAE – *CAPV* 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* | ESPAINIA / *ESPAÑA*[1] 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* |
|---|---|---|
| **Oso altua** / *Muy alto* | 1 | 1 |
| **Altua** / *Alto* | 4 | 8 |
| **Baxua** / *Bajo* | 35 | 40 |
| **Ertaina** / *Medio* | 4 | --- |
| **Oso baxua** / *Muy bajo* | 18 | 18 |
| **Nulo** / *Batere ez* | 32 | 32 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 5 | 1 |
| | 100% | 100% |

**Europako Konstituzioaren inguruko gaietan oso ondo informatua, nahikoa ondo informatua, nahikoa gaizki informatua edo oso gaizki informatua izaten ari zarela uste duzu?**
*¿Considera que Ud. está siendo muy bien informado, bastante bien informado, bastante mal informado o muy mal informado sobre cuestiones relacionadas con la Constitución Europea?*

| | EAE – *CAPV* 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* | EB / *UE*[2] 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* |
|---|---|---|
| **Oso ondo informatua** / *Muy bien informado* | 2 | 4 |
| **Nahikoa ondo informatua** / *Bastante bien informado* | 18 | 22 |
| **Nahikoa gaizki informatua** / *Bastante mal informado* | 33 | 46 |
| **Oso gaizki informatua** / *Muy mal informado* | 29 | 26 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 18 | 3 |
| | 100% | 100% |

**Zein neurritan zaude interesaturik Europako Konstituzioari buruz informatzeko?**
*¿En qué medida está Ud. interesado/a en informarse sobre la Constitución Europea?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| **Oso interesatua** / *Muy interesado* | 8 |
| **Nahikoa interesatua** / *Bastante interesado* | 27 |
| **Gutxi interesatua** / *Poco interesado* | 37 |
| **Batere interesatua ez** / *Nada interesado* | 22 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 6 |
| | 100% |

**Europako Konstituzioari buruz informatzeko interesa /**
***Interés por informarse sobre la Constitución Europea***




1 CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS, 2.577. ZBK.,2004KO URRIA; IKERKETA HONETAN EZ ZEN "ERTAINA" ERANTZUTEKO AUKERARIK EMAN, BERAZ EMAITZAK EZ DIRA GUZTIZ ALDERAGARRIAK / *CIS, Nº 2.577, OCTUBRE 2004; EN ESTE ESTUDIO NO EXISTIA LA POSIBILIDAD DE CONSTESTAR "MEDIO", POR LO QUE LOS RESULTADOS NO SON DEL TODO COMPARABLES.*

2 EUROPEAN COMMISSION (2004KO URRIA): FLASH EUROBAROMETER 159/2 / *EUROPEAN COMMISSION (OCTUBRE 2004): FLASH EUROBAROMETER 159/2.*

**Esadazu ondoko baieztapen bakoitzaren gehienbat alde ala gehienbat aurka zauden:**
*Para cada una de las siguientes afirmaciones dígame si está más bien de acuerdo o más bien en desacuerdo:*

| | 2004ko azaroa / *Noviembre 2004* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Gehienbat alde / *Más bien de acuerdo* | Gehienbat kontra / *Más bien en desacuerdo* | Ed-Ee / *Ns-Nc* | |
| **Europako Konstituzioak herritarren eskubide sozialak bermatu beharko lituzke (lana, jubilzaioa, hezkuntza, osasuna...)** / *La Constitución Europea debería garantizar los derechos sociales de la ciudadanía (trabajo, jubilación, educación, sanidad...)* | 95 | 1 | 4 | 100% |
| **Europako Konstituzioak Europako hizkuntza guztiak ofizial aitortu beharko lituzke (hala-nola euskara, gallegoa, katalana...)** / *La Constitución Europea debería reconocer oficialmente todas las lenguas de Europa (como euskera, gallego, catalán..)* | 88 | 9 | 3 | 100% |
| **Europako Konstituzioak Batasuneko zuzendaritza organuetan Europako herriei ordezkaritza eman beharko lieke** / *La Constitución Europea debería dar representación a los pueblos de Europa en los órganos directivos de la Unión Europea* | 83 | 5 | 12 | 100% |




**Espainiako Gobernuak Europako Konstituzioa onartzeko 2005ean erreferenduma deituko duela esan du. Erreferendum hau egitearen alde ala aurka zaude?**
*El Gobierno Español ha anunciado la convocatoria de un referéndum para la aprobación de la Constitución Europea en el 2005. ¿Está Ud. a favor o en contra de la celebración de este referéndum?*

| | 2004ko azaroa / *Noviembre 2004* |
|---|---|
| **Ados** / *A favor* | 71 |
| **Kontra** / *En contra* | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 21 |
| | 100% |

**Erreferendum horretan aldeko edo aurkako botoa emango zenuke edo abstenituko zinateke?**
*En ese futuro referéndum ¿votaría Ud. a favor, en contra o se abstendría?*

| | 2004ko azaroa / *Noviembre 2004* |
|---|---|
| **Alde** / *A favor* | 36 |
| **Kontra** / *En contra* | 6 |
| **Abstenituko litzateke** / *Se abstendría* | 19 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 39 |
| | 100% |



# ESTATU BATUEN ERAGINA ETA PRESIDENTETZARAKO HAUTESKUNDEAK
# *INFLUENCIA DE LOS ESTADOS UNIDOS Y ELECCIONES PRESIDENCIALES*

**Gaurkotasuneko gai batekin jarraituz, zein neurritako interesarekin jarraitu duzu AEBetako hauteskunde kanpaina berria?**
*Siguiendo con un tema de actualidad, ¿con qué grado de interés ha seguido Ud. la reciente campaña electoral de EEUU?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Oso interesatua / *Muy interesado* | 9 |
| Nahikoa interesatua / *Bastante interesado* | 33 |
| Gutxi interesatua / *Poco interesado* | 33 |
| Batere interesatua ez / *Nada interesado* | 20 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Esango al zenidake nork irabazi dituen Estatu Batuetan lehendakaritzarako hauteskundeak?**
*¿Puede Ud. decirme quién ha ganado las recientes elecciones presidenciales en Estados Unidos?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| George Bush errepublikanoak / *El republicano George Bush* | 95 |
| Jonh Kerry demokratak / *El demócrata Jonh Kerry* | 0 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Oro har, Estatu Batuei buruz hitz egiten entzuten duzunean hauetako zein sentsaziorekin identifikatzen zara gehien...**
*¿De forma general, cuando Ud. oye hablar de los Estados Unidos con cuál de estas sensaciones se identifica más…?*

| | EAE / *CAPV* 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* | FRANTZIA / *FRANCIA*[1] 2004KO IRAILA / *SEPTIEMBRE 2004* |
|---|---|---|
| Mirespena / *Admiración* | 2 | 6 |
| Sinpatia / *Simpatía* | 5 | 11 |
| Indiferentzia / *Indiferencia* | 24 | 14 |
| Kezka / *Inquietud* | 23 | 33 |
| Kritika / *Crítica* | 37 | 36 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 10 | - |
| | 100% | 100% |

**AEBei buruzko sentsazioak (%) /**
***Sensaciones respecto a los EEUU (%)***




**Estatu Batuek eragin handiagoa edo txikiagoa izatea nahi zenuke...?**
*¿Desearía Ud. que los Estados Unidos tuvieran más influencia o menos influencia...?*

2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004*

| | ERAGIN HANDIAGOA / *MÁS INFLUENCIA* | ERAGIN TXIKIAGOA / *MENOS INFLUENCIA* | ED/EE / *NS/NC* | |
|---|---|---|---|---|
| Ejerzitoan eta munduan zehar egindako parte-hartze militarretan / *En el Ejército y las intervenciones militares en el mundo* | 8 | 78 | 14 | 100% |
| Kultur bizitzan: zinema, telebista, musika / *En la vida cultural: cine, televisión, música* | 15 | 64 | 22 | 100% |
| Nazioarteko politikan / *Sobre la política internacional* | 13 | 63 | 23 | 100% |
| Bizitza ekonomikoan / *En la vida económica* | 20 | 62 | 18 | 100% |
| Europar Batasunaren orientabide nagusietan / *Sobre las principales orientaciones de la Unión Europea* | 14 | 61 | 25 | 100% |

1 SONDAGES CSA: LES FRANCAIS ET LES ETATS-UNIS A L'APPROCHE DE LÉLECTION PRÉSIDENTIELLE AMERICAINE (2004KO IRAILA) / *SONDAGES CSA: LES FRANCAIS ET LES ETATS-UNIS A L'APPROCHE DE LÉLECTION PRÉSIDENTIELLE AMERICAINE (SEPTIEMBRE 2004)*

# EUSKO JAURLARITZAREN HAINBAT LEGE-PROIEKTURI BURUZKO EZAGUTZA
# *CONOCIMIENTO DE DIVERSOS PROYECTOS DE LEY DEL GOBIERNO VASCO*

**Eusko Jaurlaritzak berriki onartu dituen proiektu batzuei buruz hitz egitera igaroko gara orain. Entzun al duzu Eusko Jaurlaritzak Euskal Kulturaren Plana onartu duela?**

*Vamos a pasar a hablar de algunos recientes proyectos del Gobierno Vasco, ¿ha oído Ud. que el Gobierno Vasco ha aprobado el Plan Vasco de Cultura?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 32 |
| Ez / *No* | 65 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 3 |
| | 100% |

**Entzun al duzu Eusko Jaurlaritzak Uraren Lege-proiektua onartu duenik?**

*¿Ha oído Ud. que el Gobierno Vasco ha aprobado el proyecto de Ley de Aguas?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 30 |
| Ez / *No* | 67 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 3 |
| | 100% |

**Entzun al duzu Eusko Jaurlaritzak Lurzoruaren Lege-proiektua onartu duenik?**

*¿Ha oído Ud. que el Gobierno Vasco ha aprobado el proyecto de Ley del Suelo?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 43 |
| Ez / *No* | 53 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Lurzoruaren Lege proiektu horrek lurraren %70 babes ofizialeko etxebizitzak egiteko gordetzea planteatzen du, zu zeu neurri horren alde ala aurka zaude?**

*Dicho proyecto de Ley del Suelo plantea reservar el 70% del suelo urbanizable para la construcción de viviendas de protección oficial ¿está Ud. a favor o en contra de esta medida?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Alde / *A favor* | 87 |
| Aurka / *En contra* | 6 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 7 |
| | 100% |

**Entzun al duzu Eusko Jaurlaritzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen Aurreproiektua onartu duenik?**

*¿Ha oído Ud. que el Gobierno Vasco ha aprobado el anteproyecto de Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 49 |
| Ez / *No* | 47 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Beharrezkoa ikusten al duzu Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunaren aldeko euskal Lege bat onartzea?**

*¿Y considera necesaria la aprobación de una Ley vasca para la Igualdad de Mujeres y Hombres?*

| | 2004KO AZAROA / *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 86 |
| Ez / *No* | 7 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 6 |
| | 100% |

**Eusko Jaurlaritzaren Lege-proiektuen onarpenaren ezagutza (%) /**
***Conocimiento de la aprobación de los Proyectos de Ley del Gobierno Vasco (%)***



## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

**Esango didazu zuk zein partidu politiko duzun gustukoen?**
*¿Me podría decir qué partido político le cae a Ud. mejor?*

| | 2001 *2001** | 2002 *2002** | 2003 *2003** | 2004KO URT-EKAINA *ENERO-JUNIO 2004** | 2004KO AZAROA *NOVIEMBRE 2004* |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAJ/PNV** | 27 | 22 | 20 | 21 | 20 |
| **PSE-EE** | 7 | 7 | 4 | 14 | 11 |
| **Ezker abertzaleko beste batzuk** / *Otros grupos izquierda abertzale.*** | 5 | 4 | 4 | 4 | 5 |
| **EA** | 4 | 4 | 3 | 3 | 3 |
| **Ezker Batua** | 6 | 4 | 2 | 6 | 3 |
| **PP** | 4 | 5 | 5 | 4 | 3 |
| **ARALAR** | -- | -- | 5 | 2 | 1 |
| **Beste batzuk** / *Otros* | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| **Denak ikusten ditut ondo**/ *Todos igual de bien* | 3 | 2 | 1 | 2 | 2 |
| **Bat ere ez dut ondo ikusten** / *Ninguno me cae bien* | 21 | 25 | 25 | 20 | 25 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 24 | 27 | 32 | 26 | 26 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% |

* **Datu horiek garai horretan eginiko ikerketen emaitzetatik ateratako batezbestekoak dira: batezbestekoak egitean lehenengo dezimalaren borobilketa egin da eta horregatik batuketa %100 baino altuagoa suerta daiteke** / *Estos datos son medias obtenidas entre los resultados de los estudios realizados en este período de tiempo; debido al redondeo del primer decimal efectuado al realizar las medias, la suma total puede ser diferente a 100%.*

** **Ezker abertzaleko beste talde batzuk (AUB, Batasuna, HB, EH)** / *Otros grupos de la izquierda abertzale (AUB, Batasuna, HB, EH).*



# ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2004ko azaroaren 11 eta 12a bitartean egin zen.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 11 al 12 de noviembre de 2004.*

| **Landa lana** / *Trabajo de campo* |
|---|
| *Gizaker, S.L.*, Industrialdea de Gojain, Ed. C-2., 01170 Legutiano (Araba) |

# IRITZIAK